



BARREN
TOKIKOM



Etxea, aldean

ZELETA

BARAZKIAK 609 357 619

NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA

- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

ZELETA BASERRIA
Aiastia auzoa (Elgoibar)
www.zeletabaserria.com




Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoak erabili gabe lortzen dugu

irten eta begiratu!

etxeGain

BIZIGUNEA



4. SOLAIRUA
2 LOGELA - 2 BAINU
HORNITUTAKO SUKALDEA,
TERRAZA
140.000 €

WWW.ETXEGAIN.COM

GE

grupo eibar
inmobiliaria

689 66 08 01



AZKENENGO BI
ETXEBIZITZA, BEHEKO
SOLAIRUAN. TXOKOAREKIN
ETA GARAJERA SARBIDE
ZUZENAREKIN.
195.000 euroan hasita

E: comercial@grupoelbar.com

San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar

E: comercial@grupoelbar.com 943 31 66 11

GRUPO FINANCIARIO P&C

bankoa | Grupo
Credit Agricole

IMANOL GARAIZABAL, Musika Eskola

“Hizkuntza ohiturak aldatzeko oso ondo etorriko zaigu Euskaraldia”



◊ **Nola eragin dizue koronabirusak musika eskolan?**

Eskola itxi eta ahalik eta azkarren moldatu ginen klaseak on-line emateko. Bakarkako klaseak nahiko erraz antolatu genituen, baina taldekakoek lan handiagoa eman ziguten.

Ikasturteko azken hilabeteetan klase presentzialak berreskuratu genituen bakarkako ikastaroetan, eta taldekakoak on-line ematen jarraitu genuen. Orain irailera begira jarri gara, baina ez dakigu zein izango den egoera orduan.

◆ **Zein da musika eskolako harremanetan nagusitzen den hizkuntza?**

Euskara. 25 langile gara, eta pare bat kenduta, gainerakoak nahiko ondo moldatzen gara euskaraz. Eskolak emateko hizkuntza irizpide batzuk ditugu jasota: taldekako eskolak euskaraz ematen dira, eta bakarkakoetan ere euskara lehenesten da, baina irakaslea eta ikaslearen arteko hizkuntza ohiturak zehazten du gehienetan klasea zein hizkuntzatan izango den. Eskolan, oro har, euskara nagusitzen da harremanetan, bai gurasoekin, bai ikasleekin eta baita langileen artean ere, baina oraindik baditugu ohiturak aldatzeko. Nik lehen hitza beti egiten dut euskaraz, baina gero erabiltzailearen beharretara egokitzen naiz. Niri oso zaila egiten zait gaztelaniaz hitz egiten didan bati euskaraz egitea; berak euskaraz ulertu arren, ez naiz gai elkarriketari elebitan eusteko.

◆ **Idatzizko komunikazioa zein hizkuntzatan egiten duzue?**

Idatzizkoan euskara da nagusi. Ohar guztiak euskaraz idazten ditugu lehenengo eta denbora badaukagu itzultzen ditugu gaztelarrera. Noizbait jaso izan ditugu kexak mezuak euskaraz bakarrik bidaltzeagatik. Kartelak ere gehienetan euskara hutsean egiten ditugu, ekitaldien aurkezpenak ere bai eta sare sozialetan ere euskara da nagusi. Saiatzen naiz oharrak elebitan egiten inor ez haserretzeko, baina haserreak egotekotan, gaztelania falta delako izango da.

◆ **Hartuko duzue parte Euskaraldian?**

Bai. Euskara gaitasun aldetik ondo gaude musika eskolan, baina erabilera beste kontu bat da. Hizkuntza ohiturak aldatzeko oso ondo etorriko zaigu Euskaraldia. Lehen ere langileok hartu genuen parte eta irakasleren batek esan zidan bera *Belarriprest* izango zela, baina ez Euskaraldian bakarrik, baizik eta betiko. Horrelako ekimenak ondo daude ohiturak aldatzeko.



ANDREA ARRIETA, Eguneko Zentroa

“Euskaraz dakitenekin euskaraz egiten dugu beti, eta langileon arteko harremanetan ere euskara da nagusi”



◊ **Zer moduz zaudete? Zer eragin izan du COVID-19ak Eguneko Zentroan?**

Ia hiru hilabetez izan dugu Eguneko Zentroa itxita, baina orain lanean ari gara berriz. Zabalteko orduan, neurri handiak hartu ditugu erabiltzaileen segurtasuna eta osasuna bermatu ahal izateko. Egunerokotasunean protokolo ezberdinak erabiltzen ditugu, esaterako, eskuak eta oinetakoak hidrogelarekin garbitzen ditugu, egunero hartzen dugu tenperatura, erabiltzaile bakoitza toki berean jartzen saiatzen gara...

◆ **Zein da, nagusiki, Eguneko Zentroan entzuten den hizkuntza?**

Eguneko Zentroan bi hizkuntza erabiltzen dira egoiliarrekin: euskara eta gaztelania. Erabiltzaile askok ez zuten aukerarik izan euskara ikasteko bere garaian, beraz, eurekin gaztelaniaz hitz egiten dugu, eta familiekin ere gauza bera gertatzen da. Hala ere, euskaraz dakitenekin beti euskaraz egiten dugu, eta langileen arteko harremanetan ere euskara da nagusi.

◆ **Badaukazue euskararen erabilera areagotzeko erabaki edo irizpiderik?**

Irizpidea argia da: ahal den neurrian eta aukera dagoen egoeretan, beti euskaraz egitea. Telefonoa euskaraz erantzuten dugu, eta senideekin ere lehenengo hitza beti euskaraz izaten da. Dokumentazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz daukagu, baina lehenengo euskaraz dauka.

◆ **Bigarren edizioan entitate moduan parte hartzeko aukera dago. Emango duzue izena Euskaraldian?**

Bai, hartuko dugu parte. Aurreko ekitaldian ere parte hartu genuen Eguneko Zentroko langileok. Batzuk *Ahobizi* izan ziren besteak *Belarriprest*. Esperientzia polita izan zen. Oraingoan ez dugu zalantzarik izan eta entitate bezala bi arigune sortuko ditugu, bata Eguneko Zentroan bertan, eta bestea, garraioan.

◆ **Garrantzitsuak iruditzen zaizkizu horrelako ekimenak?**

Bai. Ekintza desberdin asko egiten dira euskara bultzatzeko eta uste dut horrelako ekimenak beharrezkoak direla gure hizkuntza sustatzeko.



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► SEBAS ETXANIZ ETXEAN!

Elgoibarko preso den Sebas Etxaniz uztailaren 11n irten zen Villabonako espetxetik hirugarren graduan. 76 urte ditu Sebasek eta euskal preso politikoen kolektiboan presorik zaharrena da. Orain bere etxean dago, bere familia-rekin, baina momentuz, hirugarren graduaren aplikazioz, lotara espetxera joan behar du astegunetan. Azken urte hauetan makina bat elkarretaratze, sinadura bilketa, mobilizazio, ageraldi... egin ditugu Sebas aske uzteko eskatzeko. Lortu dugu, nahiz eta hirugarren graduan izan. Zorionak denoi egingdako ahaleginagatik eta mobilizazioek emaitza ekarri dutelako. Elgoibarren badugu arrazoi politikoak zirela medio alde egin behar izan zuen pertsona bat: losu Lariz. Duela 36 urte herria utzi behar izan zuen, eta ez diote bueltatzen uzten. Bestetik, oraindik ere badira beste 225 euskal preso, tartean gaixo larriak eta adin nagusikoak, Euskal Herriko urrutiratuak, bakartuak kasu askotan... Gure eta Euskal Herriko gehiengoaren nahia haien eskubideak

babestuak izatea, eta azkenean, etxean ikustea da, denbora politiko berriak horrela eskatzen duelako. Beraz, zorionak eta aurrera!

Sare Elgoibar

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEk edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datoren eskutitzik argitaratuko.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaoa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, losu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



▶ Maskara jantztea derrigorra da, kalean ere

Kalean ere nahitaezkoa da maskara jantztea Hego Euskal Herrian, baita metro 1'erdiko distantzia gordetzeko aukera dagoenean ere. Orain arte, derrigorra zen garraio publikoan, toki itxietan eta publikoetan eta distantzia gordetzerik ez zegoen kasuetan, baina orain neurriak gogortu dituzte, "bilakaera epidemiologikoak" behartuta. Hala jakinarazi zuen eguaztenean Nekane Murga Jaurilaritzako Osasun sailburuak, eta gauza bera esan zuen Santos Indurain Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak herenegun. Birusak gure artean jarraitzen duela ohartarazi zuten osasun agintariek, eta derrigorra izan arren herritarrek elkarren arteko distantzia gordetzeko eta maskarak eramateko prebentzio neurriak betetzen ez dituztela ikusita, ezinbestean gogortu behar izan dituztela neurriok. Erne egoiteko eta "zentzuz eta arduraz" jokatzeko eskatu diete herritarrei osasun agintariek, eta ohartarazi dute ez dutela baztertzen "neurri gogorragoak" hartzea, herritarrek agindutakoa bete ezean.

- ◆ Maskara jantzen denean, egoki jantzen dela ziurtatu behar da: sudurretik kokotseraino estali behar du maskarak. Erabili beharreko maskarak ez du zertan haize-balbula izan, ez bada behintzat erabilera profesionalerako.

- ◆ Ondo jantzen ez duenari 100 euroko isuna jarriko diote Nafarroan. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian zenbatekoa izango den ez dute zehaztu.

- ◆ Ostalaritzako lokaletan, ezingo dira 10 pertsonatik gorako taldeak batu mahaietan, ez establezimenduaren barruan, ez kanpoan. Gainera aginduak agintzen du egungo egoerak iraun bitartean eta agindu hori indarrean egon bitartean, ez dela ordutegiak zabaltzeko beste baimeirik emango, eta eman direnak atzera botako ditu. Neurri horrek ostalaritzako establezimendu eta zerbitzuetan, jatetxe-



Artiboko irudia

etan, txokoetan eta sozietate gastronomikoetan du eragina, bai eta diskoteketan eta gaueko aisiako gainerako establezimenduetan ere. Tabernetan eta terrazetan maskara jantzi beharko da, eta jateko nahiz edateko unean bakarrik kendu ahal izango da.

- ◆ Debekatuta egongo da kalean taldean edariak kontsumitzea. Botila festak debekatuta daude beraz, «osasunaren kalterako jarrerak adierazten dituztelako».

- ◆ Cocktailak eta buffetak egin daitezke gehienez 25 laguneko taldeetan. Edozein ere, bezeroen arteko segurtasun tartea zaindu beharko da mahaietan zein barran (establezimendu barruan eta baita kanpoaldean ere).

- ◆ Maskara kendu ahal izango da kirola egiteko, betiere pertsonen arteko distantzia mantentzen den kasuetan. Kiroldegietan jarri egin beharko da eremu komunetan. Hondartzan eta igerilekuan maskara eraman beharko da. Uretara joateko edota toallan etzanda egoteko kendu ahal izango da bakarrik, distantzia gordetzeko aukerarik baldin badago. Toallan jarrita daudenak etxe berekoak baldin badira, ez dute jantzi beharrik izango, bai ordea mugitzean edo paseatzeko orduan.

- ◆ Saltokietan eta jatetxeetan sartzeko or-

duan maskara jantzi beharko da (orain arte ere hala zen legez), eta establezimenduetako arduradunen esku egongo da neurriak betetzen direla bermatzeko ardua.

- ◆ Lantokietan, maskara kentzeko aukera izango da, 1,5 metroko distantzia mantentzerik baldin badago.

- ◆ Eraikin publiko guztietan maskara jantzi beharko da.

- ◆ Debekatuta dago gazte-lonjetan eta antzeko ezaugarriak dituzten lokaletan jarduera oro egitea.

Bi koronabirus kasu Elgoibarren

Uztailaren 11n eta uztailaren 13an eginiko PCR probetan bi koronabirus kasu agertu dira Elgoibarren. Dagoeneko, Elgoibarren, 49 kasu erregistratu dira Osakidetza datuak jasotzen hasi zenetik, eta datuek erakusten dutenez, 1.000 biztanletik 4 dira gaixotu direnak. Izan ere, Elgoibarren 414,3koa da kutsatuen 100.000 biztanleko tasa. Udalerrietako tasa kalkulatzeko, positibo kopurua eta EUSTATen arabera udalerririk bakoitzeko biztanle kopurua hartzen dira kontuan. Elgoibarrek 11.585 biztanle ditu. Birusaren oinarriko birsorkuntza tasa %1,63an dago EAEn.

IMHren gizarteratze-laneratze proiektuan parte hartu dutenei diplomak banatu dizkiete



Debarrenean eta Debagoienean gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden 17 eta 35 urte bitarteko gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko helburarekin sortu zuten Erronka Duala proiektua, eta dagoeneko iritsi da azkenera. Izan ere, uztailaren 2an banatu zizkieten diplomak ikasleei. Proiektua IMHk gauzatu du, Kalekka Elkartearekin eta La Caixa Gizarte Ekintzarekin lankidetzan. Gazte horien inklusioa da proiektuaren azken helburua, eta horretarako, eta Lanbide Heziketa dualaren bidez, haien trebetasunak garatzen dituzte. Besteak beste honako hauek landu dituzte 2019ko azaroan hasi zuten proiektuan: gizarteratze ibilbide pertsonalizatuak; gaitasun pertsonalak nahiz besteekin harremantzeko gaitasunak eta antolakuntzarako gaitasunak indartzea, zeharkako gaitasun eta gaitasun teknikoak lantzea. IMHtik zabaldu dute harro daudela honelako ekimenak zuzentzeaz eta ingurunearen garapen sozialaren parte izaten jarraitzeaz. Informazio osoagoa eta ekitaldiko argazkiak ikusteko sartu IMHren webgunean.

Slavoj Zizek filosofo esloveniarraren 'Pan(dem)ic!' saiakera laburra itzuli du Danele Sarriugartek euskarara

IZURRI! izenburua du euskaraz Slavoj Zizek filosofo esloveniarraren *Pan(dem)ic!* saiakerak. COVID-19aren pandemia bete-betean idatzi du Zizekek eta Danele Sarriugartek itzuli du liburua, konfinamenduan. Hamar atal, hiru testuz osatutako eranskin bat eta Imanol Galfarsororen hitzostea dakartza liburua. "Larrialdi egoeratan ohi denez, ziurgabetasuna nagusitu da eta galderak biderkatu zaizkigu; argitaldarion arduretako bat aldaketak ulertzeko tresnak ematea dela sinetsita, erantzunik bilatzen saiatu gara, edo, erantzunik ez denean, galdera egokiak planteatzen", azaldu dute Txalaparta argitaletzeko arduradunek eurek.



Arg.: Jon Urbe (Foku)

Artile bilketa egingo dute Gipuzkoan

Debemenetik jakinarazi dute Gipuzkoan uztailaren bigarren hamabostaldian egingo dutela artile bilketa. Mutriku, Itziar, Deba, Mendaro eta Elgoibarko artzainek Azpeitiko Lapatx zabortegira eraman beharko dute artilea uztailaren 22an, eta Soraluze eta Eibarkoek, berriz, Bergarako Epele zabortegira. Zerbitzu hau erabili nahi dutenek, hala ere, aurrez txanda eskatu beharko dute, 696 433 602 telefono zenbakira deituta. Telefono horretan azalduko dizkiete noiz, non eta zein ordutan entregatu beharko duten artilea. Zerbitzuaren zati bat Gipuzkoako Foru Aldundiak hartuko du bere gain, eta gainerakoa, artzainek ordaindu beharko dute. Bildutako artile guztia Nafarroara eramango dute gero, konposta egiteko. Debemenetik esan dute lanean jarraituko dutela etorkizunean artilea "baliozkoa izango den baserriko produktua" izan dadin.

Entrenamendu taldeak sortu nahi dituzte korrikalarientzat

Elgo! korrikalari taldeak, Mintxeta Atletismo Taldeak korrikalari herrikoientzat sortutako atalak, entrenamendu taldeak sortu nahi ditu maila guztietako korrikalarientzat, izan asfalto gainean korrika egiten dutenentzat nahiz mendian ibiltzen direnentzat. Korrikalarien mailaren arabera hiru talde osatu nahi dituzte eta hainbat gaitasun landuko dituzte: abiadura, indarra, iraupena, korrika egiteko teknika... Era berean, entrenamendu errutinei buruzko ezagutza ere jasoko dute parte hartzaileek. Orduetegiak eta egutegia ezarri aurretik, antolatzaileek jendearen prestutasuna eta gogoia ezagutu nahi dituzte, eta horretarako, e-posta bat (elgokorrika@gmail.com) eta telefono zenbaki bat (679 966 696) jarri dituzte interesa izan dezaketen guztien eskura.

Mendaroko Udalak ez du ekitaldi bakar bat ere antolatuko santanetarako

Santanarik ez da izango aurten Mendaron. Bi bilera egin ditu Udalak herritarrekin jaien inguruan zer egin erabakitzeko, eta joan zen barikukoan, bigarrean, santanetan ekitaldirik ez antolatzea adostu zuten. Tabernek ere beranduenez 3:00etan itxi beharko dute, eta herritarrei arduraz jokatzeko eskatu die alkateak.

“Ardura kolektiboa da ezarritako neurriak betetzea, atzerapausorik eman beharrik izan ez dezagun”, esan du Iñaki Arregi alkateak. “Azken boladan ikusi dugu ezinbestekoa dela prebentzio, higiene eta segurtasun neurri oro betetzea. Jaietan honakoak betearaztea zaildu egiten da. Horren aurrean, arduraz jokatu eta ekitaldirik ez da antolatuko”, gehitu du. Koronabirusaren pandemia hasi zenetik, birritan batu dira herriko hainbat eragile eta norbanako Udalarekin, santanetan zer antolatu adosteko. Uztailaren 1ean izan zen lehenengo batzarra. Orduan, hogeitau bat lagun batu ziren, eta hainbat ekintzari eusteko aukeraz jardun ziren hizketan. Arriskuak saihestu beharra nabarmendu zuten bilerara batutako guztiek, baina santanetan tradiziozkoak diren ekintzei eustearen alde ere agertu ziren, ekintzak egoera berrira egokituta beti ere. Joan zen barikurako deitu zituen Udalak berriro batzarrera. Bost lagun elkartu ziren batzarrean, eta zalantzak ageriagoak izan ziren, ziurrenik koronabirus agerraldiak ere izan direlako egunotan. Behingoagatik eta egoeraren larria ikusita, santanetan ezer ez antolatzearen alde egin zuten bigarren batzarrean. Ofizialki, beraz, ez da santana jairik izango aurten, eta egun horietan tabernek ere beranduenez 3:00etan itxi beharko dute. “Elkarlanean jardun behar gara guztion gain baitago koronabirusa hedatzea eragozte”.

Bi xake txapelketa jokatu dituzte Mendaron

Otarre Xake Taldeak bi txapelketa antolatu ditu Mendaron uztailaren 17 eta 18rako, Udalaren eta Uztargi tabernaren laguntzarekin, eta izena emateko epea zabalik dago. Uztailaren 17koa aldi bereko xake txapelketa izango da. Otarre Xake Taldeko Javi Muñoz xakelariak hogeitau lagunena kontra jokatu du, aldi berean. Laz ere antolatu zuten era honetako txapelketa Mendaron, eta orduan, Judith Goenaga xakelari azkoitiarra jardun zen aldi berean hogeitau xakelariena kontra (17-3ko emaitzarekin Goenaga bera nagusitu zen). Txapelketa Herriko Enparantzan jokatu dute, 18:00etatik 20:30era. Zaturako, hilaren 18rako, berriz, xake azkarreko txapelketa antolatu dute. Partida bakoitzak bost minutu eta hiru segunduko iraupena izango du, eta 11:00etatik 13:30era jokatu dute txapelketa. Batean zein bestean parte hartzeko izena eman behar da 653 715 375 telefonora whatsapp idatzita edota xakemendaro@gmail.com helbidera idatzita.

Uztailaren 18an, 20an eta 23an jokatu dituzte Mendaron padel txapelketako finalerdiak



Ekainaren 22an hasi zuten Mendaron padel txapelketa, eta uztailaren 25ean, Santio Egunez, jokatu dituzte bi finalak: final handia eta kontsolazio faseko finala. Falta diren lau partidak hilaren 18an, 20an eta 23an jokatu dituzte, aste honetan obretan jardun direlako padeleko kantxan.

Bi talde bereiztu dituzte antolatzaileek: elitekoa eta kontsolaziokoa, eta haren arabera eman dute finalerdien berri ere. Elitekoan Gurrutxaga eta Quintas bikote eibartarra eta Txiki eta Vini bikotea (mutrikuarra da bata, eta ondarrutarra bestea) lehiatuko dira finalerdietako batean, eta bestean, bi bikote eibartar jardungo dira aurrez aurre: Sagarna eta Jorgek osatutakoa eta Egaña eta Santiagok osatutakoa. Kontsolazioko koadroan, beste bi finalerdi izango dira, eta lehiatuko diren partaide guztiak herrikoak izango dira (Argazkikoak dira. Argazkian, Unai Mendikute falta da). Lehenengo finalerdian Iñigo Zubiaurrek eta Joseba Mantecak osatutako bikotea eta Luken Agirregabiriak eta Asier Olabek osatutakoa lehiatuko dira, eta bigarrean, Unai Mendikutek eta Ander Aberasturik Isaak Mancebo eta Axular Agirregabiria izango dituzte aurrez aurre. Finalak uztailaren 25ean jokatu dira, Mendaron, 10:00etan hasita. Antolatzaileek jakinarazi dute errifak ere atera dituztela, eta finalen egunean egingo dutela otarraren zozketa. Errifak Aitzbeltz tabernan daude salgai momentuan, baina Lagun Betikoak tabernan jartzeko asmoa ere agertu dute.

Urruzunoko zabortegia erabat zigilatzeke aurrelanak hasi dituzte

Urruzunoko zabortegiko lehen gunea zigilatuta dago lehendik, eta orain, bigarren gunea zigilatzeke aurrelanak hasi ditu Debabarreneko mankomunitateak. Aurrelan horien artean, azterketa topografiko bat egin zuten ur-iturburuak identifikatzeko eta UTM koordinatuak hartzeko. Bestalde, iaztik zabortegiko lixibiatuen kontrola egiten dute eta ingurumen-baimen integratuan ezarritako parametroak aztertzen dituzte. Lurzoruaren egoera ere aztertu dute, eta bost putzu egin dituzte lurpean egon daitezkeen gasak ateratzeko. Ingurumena Zaintzeko Plana ere sortu dute, Eusko Jaurlaritzaren baimenean ezarritako parametroen ingurumen-jarraipena egiteko. Erabateko zigilatze lanak 2021eko udaberrian hastea aurreikusten dute, eta aurrekontua 985.000 eurokoa da.

Anbulatorioko murrizketen kontrako mobilizazioak iragarri ditu Gaugerroa-Duintasunak

Gaugerroa-Duintasuna pentsiodunen taldeak ambulatorioko murrizketen kontrako mobilizazioak hasi ditu, eta orain, erreklamazio orriak betetzeko deia egin diete herritarrei. Anbulatorioan bertan eskatu daitezke inprimakiak, eta bertan, 24 orduko arreta zerbitzua eskatzeko deia egin dute elkarteko arduradunek, herriko hainbat eragilerekin batera.

Elgoibar BH Institutuko ikasle guztiek gainditu dute unibertsitatera sartzeko proba

Elgoibar BH Institutuko 107 ikaslek egin dute aurten unibertsitatera sartzeko azterketa, eta ikastetxeko arduradunek jakinarazi dutenez, denek gainditu dute. Horrez gain, ikasturte amaierako emaitzak kontuan hartuta, ohorezko matrikulak banatu dituzte. Bost ikaslek jaso dute aurten: Uxue Egaña Unanuek, Elaia Oiartzabal Zinkunegik, Jone Alonso Nogalesek, Miren Etxezarreta Mendikutek eta Alain Rodriguez Martijak.



June Loidik beste denboraldi baterako berri du kontratua Zuazo eskubaloit taldearekin



Hurrengo denboraldian ere Barakaldoko Zuazo taldean jokatuko du June Loidi jokalaria elgoibartarrak, emakumeen eskubaloiko goreneko mailan. C.B. Zuazorekin akordioa sinatu zuen Sanlo kirol taldeak 2018ko udan eta geroztik lagata jokatuko du June Loidi Bizkaiko taldean. Kontratua denboraldi batez luzatzea erabaki dute orain, eta ondorioz, 2020-2021 denboraldian ere Barakaldoko taldean jokatuko du Loidi. Taldeak kontratu berritzearen berri eman ostean, inoiz baino gogo gehiagorekin dagoela adierazi du hegaleko jokalaria elgoibartarrak. Zuazorekin batera hazten eta hobetzen jarraitzeko eta helburuak elkarrekin betetzeko inoiz baino gogo handiagoarekin dagoela esan du.

EAJko legebiltzarkide izaten jarraituko dute Maialen Gurrutzagak eta Irune Berasaluzek

Aurreko legegintzaldian zituzten aulkiei eutsi diete Irune Berasaluze mendarorarak eta Maialen Gurrutzaga elgoibartarrak Eusko Legebiltzarrean. Euzko Alderdi Jeltzalearen (EAJ) Gipuzkoako hautagaien zerrendan aurkeztu ziren biak, bosgarren postuan Berasaluze eta zortzigarrengoa Gurrutzaga. Doman eginiko hauteskundeetan jasotako emaitzekin, EAJk hamar legebiltzarkide eskuratu ditu Gipuzkoan. Guztira 75 eserleku izaten dira Eusko Legebiltzarrean, 25 probintzia bakoitzeko. EAJk 31 legebiltzarkide lortu ditu guztira Euskal Autonomia Erkidegoan, aurreko legegintzaldian baino hiru gehiago, hain zuzen ere.



Abuztuaren 15era arte eman daiteke izena 'Bizilabe' egitasmoan

Elgoibarko Udalak *Bizilabe* programaren bigarren edizioa jarri du martxan gazteen artean zientziarako eta teknologiarako zaletasuna sustatzeko. Abuztuaren 31tik irailaren 4ra, 5 saioz osatutako *Ekin energiagaz!* tailerra eskainiko dute, eta urriaren 2tik maiatzaren 28ra, bestalde, *“zan ikertzaille eta asmatzaille* programa eskainiko dute. Tailerrak Elgoibarko Makina Erremintaren Museoa egingo dira eta bi taldetan banatuta arituko dira: 2009-2010ean jaiok (10-12 urte) eta 2007-2008an jaiok (13-14 urte). Interesatuak abuztuaren 15erako eman beharko dute izena <https://labur.eus/HBFUJ> webgunean.

Murrizketa sozialik gabeko aurrekontuak egiteko eskatu dio EH Bilduk Udalari eta elkarlanerako prestutasuna agertu du

Elgoibarko EH Bilduk badaki Elgoibarko Udalak diru gutxiago jasoko duela datorren urterako Foru Aldunditik, eta egoera horren aurrean udal aurrekontua “egokitu” egin beharko dela uste du. Egokitze horretan, murrizketa sozialik gabeko aurrekontuak prestatzeko eskatu dio Udal Gobernuari. EH Bilduko arduradunek esan dutenez, 1.800.000 euro gutxiago etorriko dira herrira Foru Aldunditik, %9,52 gutxiago, eta egoera horretan, “lehentasunak” zehaztu beharko dira. EH Bilduk argi ditu lehentasunak: “Murrizketa sozialik gabeko aurrekontuak egin behar dira, gutxien dutenak babestu eta inor atzean gera ez dadin krisi honetatik irteterakoan”.

“Inbertsio sozialak” lehenetsi ditu EH Bilduk, ekonomia eta enpleguaren sustapenean oinarrituta.

Koronabirusaren krisiak klase sozialen arteko diferentzia areagotu duela nabarmendu dute, eta horren harira, hainbat datu eman dituzte: Ekaineko datuen arabera, Elgoibarren 230 herritarrek eskatu dute diru-sarrera bermatzeko errenta, 1.401 lagun zeuden enplegua erregulatzeko espedienteetan (maiatzean, 223) eta 500 herritarrek jo zuten elikagaien bankura, pandemia hasi aurretik baino 200 gehiagok, hain zuzen ere. Egoera “latza” bizi dugula esan dute eta krisi honetatik irteteko eskonomia eta enplegua berpizteko politikak behar direla nabarmendu dute. Inbertsioak “birplanteatu” egin beharko direla gaineratu dute, eta berriz ere kargu hartu diote udal gobernuari proiektu batzuek izan duten gainkostuagatik. Bestek beste, kiroldegiko obraren 353.500 euroko gainkostua eta Urazandiko igogailuaren obrak izan duen 130.000 euroko garestitzea aipatu dituzte. Aita Agirre proiektuan ere bost milioi euro baino gehiago gastatu direla esan zuten. “Kudeaketa zorrotza” eskatu diote Udalari, eta “prestutasun osoa” agertu diote datorren urterako aurrekontuak prestatzeko.





Oporrak, etxe ibiltarian

Azken urteotan asko ugaritu dira autokarabanak gure errepideetan, eta aurrean, are gehiago izango dira oporretara etxe ibiltaria hartuta joango direnak. Koronabirusa dela-eta, oporrak bertan behera utzi dituzte askok, baina beste batzuek autokarabanaz bidaiatzea erabaki dute, modu seguruan bidaiatzeko aukera ematen duela sinistuta. Gero eta gehiago dira gurgil gaineko etxebizitza hori aukeratzen dutenak bidaiatzeko, eta pandemia egoera honetan autokarabanekiko interesa handitu egin da. Gaurkoan, autokarabanaz bidaiatzen duen Elgoibarko familia baten esperientzia jaso dugu orriotan, eta horrekin batera, Maria Salegiri egin diogu elkarrizketa, autokarabanak alokatzeko enpresako nagusiari.

- AINHOA ANDONEGI -

Ez dute bidaiatzeko beste modurik ezagutzen, eta momentuz, ez daukate beste moduren bat probatzeko asmorik ere. Bidadatz Azpiazu eta Jon Elizburu 1999an hasi ziren etxea gainean zutela bidaiatzen. Gaztetatik izan dira motxila hartu eta mendira joatekoak. Jonek gogoratu du gaztetan oporrak Piriniotan pasatzen zituela lagunekin, edozein lekutan lo eginez, eta tarteka ikusten zutela jendea furgonetan edo auto handietan lo egiten: "Sekulako inbidia pasatzen genuen". Aske ibiltzea dute gustuko, loturarik gabe, eta ez dute euren burua hoteletan edo antolatutako bidaietan ikusten. Hori dela-eta, furgoneta bat erostea erabaki zuten, ohe eta sukalde txiki batekin: "Lehenengotarikoak izan ginen Elgoibarren horrelako furgoneta bat erosten, eta sarri harra-

patzen genuen jendea kristalera hurbildu eta furgoneta barrura begira". Hamar bat urtez ibili ziren furgonetarekin hara eta hona, baina ordurako Pello jaio zen, eta konturatu ziren ume batekin bidaiatzeko furgoneta txiki geratu zitzaizela, neguran bereziki: "Udan eta neguan bidaiatzen dugu guk, eta elurretara joateko erropa eta traste asko behar dira. Orduan konturatu ginen zerbait handiagoa erosteko unea zela". 2009an furgoneta saldu eta autokarabana erosi zuten. Sei bat urtez mantendu zuten estreinako autokarabana hura, baina tarte horretan beste bi seme-alaba izan zituzten, Ande eta Lur, eta barrualdea beste modu batean antolatuta zeukan autokarabana bat erostea erabaki zuten. Galizian erosi zuten, bigarren eskukoa. Auto bat alokatu, eta Ourensera



joan ziren lur txikiarekin. Alokairuko autoa han laga, dokumentazio guztia prestatu, eta autokarabanaz itzuli ziren Elgoibarrera. Orduetik etengabe ibiltzen dira bateik bestera: "Gure bidaietako etxea da autokarabana". Asko bidaiatzen dute, baina kilometro askorik egin gabe. Asteburuko irteerak egiten dituzte sarri, momentuan pentsatu, maletak egin eta martxa egiten dute, autokarabanak horretarako aukera ematen duelako: "Ez duzu ezer antolatu behar, pentsatu eta ospa!. Inguruak urtarilean hasten dira abuztuko oporrak prestatzen! Guri ez zaigu hori burutik pasatzen, beti azken momentuan ibiltzen gara". Ez dira urrutira joatekoak, baina bai, maiz bidaiatzekoak. Etxetik gertu ibiltzen dira, kostaldean zein mendian, eta bazkari edo ospakizunen bat dutenetan ere joan izan dira autokarabanen, etxera itzultzeko kezkarik gabe ibili ahal izateko: "Ikastolen aldeko jaietara ere bezperaz joaten gara normalean, eta oso erosoa da han bertan lo egitea".

Autokarabana hitza entzun eta askatasuna etortzen zaie burura; gaur hemen eta bihar han egoteko askatasuna: "Iristen zara leku batera eta eguraldi txarra badago edo beste edozein arrazoiengatik ez bazaude gustura, alde egin dezakezu". Onartu dute, hala ere, autokarabanen ugaritzeak erabilera mugatu eta arautzea ekarri duela: "Asko gara, eta denetarikoak. Zikinkeria asko uzten dute batzuek, eta normala da leku batzuetan autokarabanei sarrera debekatzea". Frantzia oso ondo prestatuta dagoela aipatu dute autokarabanaz bidaiatzeko, atsedengune eta aparkaleku asko dagoelako, eta camping munizipalak ere prezio

onean aurkitu daitezkeelako. Autokarabana guneetatik aparte, urte hauetan zehar leku "paradisiakoetan" ere lo egin dute, baina gaur egun horrelako lekuak aurkitzea ez dela hain erraza esan dute, eta leku askotan campingetara sartzea derrigortzen dutela. "Ez zaigu ondo iruditzen campingera derrigor joan beharra. Uler-tzen dugu euren negozioari begiratu behar diotela, baina autokarabaneroak autonomoak gara, gure ura eta argindarra ditugu eta gava pasatzeagatik sekulako dirutza eskatzen dute lekutan". Iruditzen zaie azkenaldian jende askok erosi edo alokatzen duela autokarabana "modan" dagoelako, baina horiek ez daukatela autobakarabanen ibiltzeko kulturarik eta horrek gainerakoei kalte egin diela: "Autokarabanaz ibiltzeak eskatzen du ur gutxi gastatzea, argindarra ere neurrian erabiltzea, ingurunea zaintzea eta errespetatzea... Kultura hori guk oso barneratuta daukagu dagoeneko, baina beste askok nahi dutena egiten dute".

Urte asko daramatzate gurpil gainean bidaiatzen, eta urte horietan etxetik kanpo pasatu dituzten gau guztiak koaderno baten apuntatzen dituzte: "Kilometro kopurua ez, baina noiz eta nora joaten garen jasotzen dugu, eta tarteka begiratzen diogu koadernoari jakiteko nondik nora ibili garen". Portugalera egin zuten bidaiak dute gogoan: "Leku asko eta politak ezagutu ditugu, baina gure lehenengotariko oporraldia Portugalen pasatu genuen eta oroitzen oso ona daukagu. Sekulako hondartzak daude, eta orduan oraindik ez ziren horrenbeste autokarabana ikusten. Oso lasai ibili ginen". Galizia, Asturias eta Kantabria inguruak ere asko gustatzen zaizkie: "Ez dago urrutira joan beharrik leku politak aurkitzeko".

Etxean bezala edo gusturago egoten dira autokarabanen: "Gure oporretako etxea da. Ia urtero joaten gara Lleidara hango senideak bisitatzera eta beti esaten digute etxean logelak libre ditzutela. Ez dute ulertzen beraiek lekua izanda nola egiten dugun lo autokarabanen, baina gu hantxe gaude gustura, gure ohean, gure izarekin". Pello, Andde eta Lur ere pozik ibiltzen dira autokarabanen, eta bidaiatzeko modu horrek jendea ezagutzeko erraztasuna ematen diela kontatu dute. "Familian bidaitzen dute askok autokarabanetan eta umeak umeengana hurbiltzen dira beti". Autokarabanak familia nukleoa sendotzeko aukera ematen duela diote: "Bostok horrelako espazio txikian batera egotea familia sentimendua sendotzeko oso ondo etortzen da. Gehiago jolasten dugu elkarrekin, pila bat hitz egiten dugu, eta haserretu ere egiten gara, baina etxean izaten ez dugun beste gerutasun batekin bizi gara autokarabanen".

Alde on guztiek, baina, badute bere alde txarra ere, eta autokarabana edukitzea "kapritxo garestia" dela onartu dute. Ez da merkea, baina beraiek inbertsio moduan hartu dute: "Auto familiar on baten prezioan erosi daiteke bigarren eskuko autokarabana bat, eta guk hori egin genuen". Euren ustez, baina, autokarabana erabiltzekotan bakarrik erosi behar da: "Aste Santuan eta udan oporretan joateko bakarrik erosteak ez du merezi gure ustez. Guk argi geneukan urte guztian erabiliko genuela". Autokarabanaren



asegurua autoarena baino garestiagoa da, eta mantentzea ere ez da broma: "Edozein konponketa egin behar diozula, dirutza da". Autokarabana gordetzea bera ere arazo izan daiteke batzuentzat. Egia da auto baten moduan aparkatu daitekeela kalean, baina "zaindutako lekuan beti dago hobeto". Jonek eta Bidatzek Erretxindin horretarako prestatuta dagoen aparkalekuan gordetzen dute autokarabana: "Hilean 56 euro ordaintzen ditugu, baina merezi du. Ur zikinak husteko lekua daukagu, zainduta dago eta mantentze lan txikiak ere egiten dituzte bertan". Hasieran kalean aparkatzen zuten, baina egun batean ezusteko bat izan zuten. Bazkari batetik bueltan autokarabanako gortinak itxita zeudela ikusi zuten, eta harritu egin ziren. Atea ireki eta mutil gazte bat aurkitu zuten beraien ohean etzanda, telebista ikusten: "Txukun-txukun zeukan dena, eta lasai zegoen ohean etzanda umeen film bat ikusten. Atun lata batzuk-eta jan zituen, baina ez zigun ezer lapurtu". Ertzainetara jo zuten eta filmeetan bezala harrapatu zuten gaztea Maalako errotonda inguruan. Susto hori izan eta handik gutxira ireki zuten Erretxindin karabana eta autokarabantzako aparkalekua, eta ordutiik, han gordetzen dute.

Elizburu-Azpiazu familiak argi dauka ahal duten bitartean ez dutela oporretarako modua aldatuko. "Umeak koskortzen ari zaizkigu eta badakigu gero eta zailagoa izango dela bizimodu honekin jarraitzea, baina ahal dugun bitartean ez daukagu oporrak beste modu batean antolatzeke asmorik". Europan zehar autokarabanen kulturak tradizio handia dauka eta jubilatutako bikote asko ikusten dira urtean zehar autokarabanen hara eta hona bidaiatzen. "Inbidia ematen digute", esan dute. Agian etorkizunean Jon eta Bidatz ere horrela ikusiko ditugu, aske, munduan barrena bidaiatzen.

► MARIA SALEGI

KRESALA CARAVAN ENPRESAKOAK

"Autokarabanak ematen duen askatasuna izugarria da"

Maria Salegirentzat ez dago autokarabanaz bidaiatzea baino modu hoberik. Betidanik bidaiatu izan dute modu horretan, eta orain dela hiru urte pasioa zuena negozio-bide egitea otu zitzaien. Lanik gabe geratu zen, eta enpresa propioa sortu zuen. Autokarabanen alokairurako Kresala Caravan enpresa sortu zuen. Argi utzi du enpresaren aurpegia berea izan arren, familia osoa duela atzetik.

◆ Noiz eta nola sortu zenuen Kresala Caravan?

Orain dela hiru urte lanik gabe geratu nintzen, eta buruari bueltak emanez bururatu zitzaidan enpresa hau sortzea. Guri izugarri gustatzen zaigu mundu hau, eta jende askok esaten zigun erretiroa hartzean autokarabana erosi eta bidaiatzera joango zirela. Hori guztia kontuan hartu eta kalkulu batzuk egin ostean, aurrera egitea erabaki nuen. Nire pasioa dena herritarrekin partekatzea oso polita iruditzen zait, eta jendearekin harreman zuzenean lan egitea pila bat gustatzen zait. Inbertsio handia eskatzen zuten negozio honek, baina gauzak gehiegi pentsatzea ere ez zait gustatzen, eta ausarta izatea erabaki nuen une hartan. Familiak babestu ninduen, eta enpresaren aurpegia ni naizen arren, familia osoa daukat atzean. Alabak komunikazioaren eta sare sozialen ardura dauka, eta nik bezeroekin egiten dut lan zuzenean.

◆ Zer eskaintzen duzue?

Autokarabanak alokatzen ditugu. Bi autokarabana ekarri genituen hasieran, eta orain bost ditugu; hiru autokarabana eta bi camper furgoneta handi. Gure esku dagoen guztia egiten dugu bezeroaren beharrak asetzeko. Bezeroak ilusioa jartzen du, eta gainerakoa guk eskaintzen diogu. Autokarabana alokatzeaz gain, nahi duenari bidaia antolatzeke gomendioak eta laguntza ere eskaintzen diogu, guretzat oso garrantzitsua delako bezeroa pozik itzultzea.

◆ Zein motatako bezeroak dituzue?

Autokarabanak probatzeko ilusioa edo kuriositatea duen jendea etortzen zaigu batez ere. Egia da modan jarri dela



autokarabaz bidaiatzea, bere garaian Santiagoko Bidea egi-tea modan jarri zen bezala, eta gaur egun badirudi autokarabana probatu ez duenari zerbait falta zaiola. Autokarabanan esperientzia gertutik ezagutzen dutenak eta euren azalean probatu nahi dutenak etortzen dira gehien. Autokarabana erosi nahi dutenak ere etortzen dira. Horrelako ibilgailuak erostea ez da merkea eta erosi aurretik probatu nahi izaten dute gehienek. Baina, bezeroen %80 lehenengo aldiz probatzera etortzen dira, eta bueltan berehala konturatzen gara zeini gustatu zaion esperientzia eta zeini ez. Batzuek idealizatuta daukate autokarabana: niretzako ez dago bidaiatzeko modu hoberik, baina beste askori ez zaie esperientzia gustatzen.

◆ **Koronabirusaren eraginez autokarabanan eskaera asko handitu dela entzun dugu. Igarri duzue zuek interes handiagoa dagoela orain?**

Bai, baina koronabirusak kalte ere egin digu, eta kalte handia gainera. Bat-batean negozioa itxi behar izan genuen eta erreserba guztiak bertan behera geratu zitzaizkigun, baita abuztukoak ere. Orain ondo ari gara lanean, eta abuzturako ere beteta ditugu autokarabana guztiak, baina abuztuan beti izaten ditugu autokarabanak martxan. Aurten komunikabideetan zabaldu dute autokarabaz bidaiatzea dela oporrak modu seguruan bizitzeko aukerarik onena, baina kontuan izan behar da bidaiatzeko modu hau ez dela aproposa jende guztiarentzat. Hondartzako lehen ilaran apartamentua alokatzea eta autokarabaz bidaiatzea ez dira gauza bera. Komunikabideek zabaldu duten mezu horrekin apur bat haserre nago. Autokarabaz bidaiatzea izugarria da, baina ez edonorentzat. Koronabirusaren kontu honekin dei pila bat jaso ditut eta informazioa eskatzeko moduagatik soilik berehala konturatzen nintzen deitzen zuena esperientzia probatu nahian zebilen edo koronabirusagatik alternatiba bila zebilen. Batek galdetu zidan ea zortzi lagunentzat autokarabana bat ba-neukan. Hau ibilgailu bat da, ez da apartamentu bat eta hori argi eduki behar da.

◆ **Zein abantaila ditu autokarabaz bidaiatzeak?**

Niretzat dena da abantaila. Beti gustatu izan zait mundu hau. Lehenengo kanping-dendan bidaiatzen genuen, gero karro-kanping bat ere eduki genuen... Gure autoan ere lo egin izan dugu txakur eta guzti! Gero autokarabana erosi genuen, eta orain, autokarabanan bat libre dagoenean aprobetxatzen dugu bidaiatzeko. Autokarabanak ematen duen askatasuna eta inprobisaziorako aukera izugarriak dira. Niri iruditzen zait autokarabanan sartzen zaren momentuan hasten direla oporrak, bidaiia bera ere abentura bat delako.

◆ **Autokarabanak asko ugaritu dira, baina azpiegitura aldetik herrialdeak prestatuta al daude autokarabaz bidaiatzeko?**

Frantzia eta Alemania oso ondo prestatuta daude, eta Espainia ere gero eta hobeto. Herrialde batzuei ez zaizkie autokarabanak gustatzen, uste dutelako autokarabanan bidaiatzen dutenak zikindu egiten dutela soilik eta ez diotela herriari ezer eskaintzen. Ni ideia horren kontra nago, familia gehienek autokarabana apartatzen duten herrian kontsumitzen dutelako. Denetik dago, eta batzuek dena zikintzen dute, baina autokarabaz bidaiatzen duen jende gehiena oso arduratsua da. Ura aurrezten ikasten da, argindarra ere bai, zabor gutxiago sortzen ikasten da... Egia da autokarabanak asko ugaritu direla eta erabilera arau batzuk beharrezkoak direla, baina berez, autokarabana edozein aparkalekutan laga daiteke. Ezin dena da toldoa zabaldu, mahaiak atera eta edozein lekutan kanpatu, baina aparkatu eta lo egitea legez baimenduta dago edozein aparkalekutan.

◆ **Prezioari dagokionez, edonoren eskura dago autokarabanan bidaiatzea?**

Ez da merkea. Denboraldi altuan eguna 175 euroan daukagu, baina beti izaten dugu deskonturen bat, eta denboraldi bajaran asko merketzen da prezioa. Autokarabana erostea ere ez da broma, eta erostekotan, erabiltzeko erosi behar da. Aste Santuan eta abuztuan bakarrik bidaiatzen dutenei nik ez diet gomendatzen erostea.

EMAITZAK ELGOIBAR	2016		2020		2016		2020		2016		2020		2016	
	2016	2020	2016	2020	2016	2020	2016	2020	2016	2020	2016	2020	2016	2020
KULTUR ETXEA *	937	409	660	425	199	69	158	112	98					
AITA AGIRRE *	209	570	93	389	26	33	24	89	25					
P. MUGURUTZA	406	367	292	322	145	63	106	129	64					
SAN ROKE	338	298	218	220	63	15	50	54	36					
URAZANDI	188	178	125	154	71	26	98	114	33					
ALTZOLA	39	29	52	45	22	11	2	6	8					
IMH	224	202	157	176	57	29	48	43	26					
GUZTIRA	2.341	2.053	1.597	1.731	583	246	486	547	290					

* Kultur Etxea: Kultur Etxeko sotoko hautes-mahaiak Aita Agirren jarri dituzte.

* Aita Agirre: Jubilatuen Biltokiko eta Kultur Etxeko sotoko mahaiak Aita Agirre kulturgunean jarri dituzte.

ELGOIBAR - EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2020.07.12

URTEA	HAUTESLE-ERROLDA	EMANDAKO BOTUAK	ZURIAK	BALIOGABEAK	ABSTENTZIOA
2012	8.902	6.103	70	41	%32,20
2016	8.772	5.514	24	19	%37,18
2020	8.621	4.881	31	15	%43,38

Joera orokorra errepikatu da Elgoibarren eta Mendaron, eta EAJk irabazi ditu bozak

EAJk irabazi ditu Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Hiru lurraldeetan gailendu dira jeltzaleak, bototan behera egin arren (-48.739), eta hiru legebiltzarkide gehiago lortu dituzte: 31. EHBildu koalizioa izan da bigarren bozkatuena. Bototan igoerarik handiena izan dute, 23.516 botokoa, eta 22 aulki beteko dituzte legebiltzarrean. Abertzaleek, beraz, orain arteko markarik onena lortu dute, 75 aulkitatik 53 beteko dituztelako (legebiltzarkideen %70,6; hirutik bi alegia), baina PSE-EErekin batuta gehiago osoa du EAJk eta Gobernuarekin osatzea espero da. Emaitzetako joera orokor hori errepikatu da Elgoibarren eta Mendaron ere. Badira beste bi datu adierazgarri: pandemia betean egin ziren domekan hauteskundeak eta eta parte-hartzea duela lau urtekoetan baino zazpi puntu apalagoa izan zen, %52,8koa. Eta bi: VOXek, Espainiako eskuin muturreko alderdiak, ordezkaritza izango du estreinakoz Eusko Legebiltzarrean, Araban ordezkaritza bat lortu zuelako.

- AINARA ARGOTIA -

Abstentzioak markatutako hauteskundeak izan ziren domekakoak. Pandemia betean egin ziren, eta horrek eragina izan zuen parte-hartzean. Botoa ematera deituta zeuden herritarren %52,8k eman zuten botoa, eta beraz, eta duela lau

urteko hauteskundeekin alderatuta, parte-hartzeak zazpi puntu egin zuten behera, orduan hautesleen %60k eman zutelako botoa [1980. urtetik, EAEn hauteskunde autonomikoak egiten hasi zirenetik, sekula izan den abstentziorik handiena izan zen domekakoak:

PP+Cs		VOX		BESTEAK	
2016	2020	2016	2020	2016	2020
26	40	-	10	25	12
4	31	-	3	1	12
15	38	-	1	26	19
12	16	-	4	9	16
16	11	-	15	15	4
6	7	-	1	1	0
7	9	-	3	11	6
86	152	-	37	88	69

%49,38koa]. Batez besteko horren bueltan apaldu da parte-hartzea Elgoibarren (-6,2 puntu) eta Mendaron (-6,8 puntu). Emaitzetan ere, joera orokorra errepikatu da gure bi herrietan. EAJk irabazi zuen domekan Elgoibarren eta Mendaron, eta EHBildu izan zen bigarren alderdi bozkatuena, baina jeltzaleek behera egin zuten bototan, eta koalizioak, gora. Elgoibarren, 288 boto gutxiago bildu zituen EAJk domekan, eta 134 gehiago, EHBilduk, eta Mendaron, 22 galdu zituen EAJk, eta 3 irabazi, EHBilduk. Abertzaleak nagusitu dira, beraz, bi herrietan. Elgoibarren, hamar bototik zazpi eskuratu dituzte EAJ eta EHBilduk (%77,5), eta Mendaron, berriz, hamarretik ia zortzi (%79,1). Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko herri guztietan irabazi dute bata ala besteak, Ermuan (Bizkaia) eta Navaridasen (Araba) izan ezik [Ermuan, PSEk irabazi ditu hauteskun-

deak, eta Navaridasen, PP+Cs koalizioak]. PSE izan da boto gehien lortu dituen hirugarren alderdia Elgoibarren, bai eta emaitza orokorretan ere, Elkarrekin Podemos gaintuta [duela lau urtekoetan aurkeztu zen estreinakoz Eusko Legebiltzarrera eta sekulako arrakasta lortu zuen]. 1,3 puntu hazi da alderdi sozialista legebiltzarrerako bozetan eta eserleku bat gehiago lortu du 2016ko bozkekin alderatuz gero: 10. Elgoibarren 61 boto gehiago lortu ditu alderdi sozialistak, 547, eta 2016an baino hiru gutxiago Mendaron: 54. Galtzaille nagusiak, berriz, Elkarrekin Podemos eta PP+Ciudadanos koalizioak izan dira. Elkarrekin Podemosek bost legebiltzarkide galdu ditu eta 11tik 6ra jaitsi da. PP ere gainbeheran dator azkeneko urteotan, eta bistan da Ciudadanosekin batzuek ere ez diola onurarik ekarri Euskal Autonomia Erkidegoan. 2016ko hauteskundeetan bederatzita legebiltzarkide lortu zituen Alderdi Popularrak, eta orain, Ciudadanosekin batuta ere, bost izango ditu. Gurera etorrita, gauza bera.

Elkarrekin Podemosek sekulako jaitsiera izan du. Berak izan du jaitsierarik handiena Elgoibarren eta Mendaron. Miren Gorrotxategik lideratutako alderdiak 340 boto gutxiago batu ditu Elgoibarren (246), eta 89 gutxiago Mendaron (55). Carlos Iturgaitzen PP+Ciudadanos koalizioak ere behera egin du gure bi herrietan. 224 boto gutxiago eskuratu ditu Elgoibarren, eta 32 gutxiago, Mendaron.

Gaur zenbatuko dituzte azkeneko botoak

Gaur, barikua, zenbatuko dituzte Espainiako estatutik kanpo bizi eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan bozkatzeko eskubidea zutenek emandako botoak. Espainiako Atzerri Ministerioak emandako datuen arabera, baina, parte-hartzea oso txikia izan da: %3,5koa. Guztira, 2.672 lagunek eman dute botoa, kontsultuetan edota posta bidez.

EMAITZAK MENDARO	eaj pnv		ehbildu		alderdi sozialista		PSOE		PP Cs PP+Cs			VOX		BESTEAK	
	2016	2020	2016	2020	2016	2020	2016	2020	2016	2016	2020	2016	2020	2016	2020
IKASTOLA	373	351	268	271	144	55	57	54	34	10	12	-	5	9	17

MENDARO - EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2020.07.12

URTEA	HAUTESLE-ERROLDA	EMANDAKO BOTUAK	ZURIAK	BALIOGABEAK	ABSTENTZIOA
2012	1.458	973	6	6	%33,47
2016	1.440	904	4	5	%37,22
2020	1.401	765	11	15	%43,90



Miguel Angel Martinez IZOZKI SALTZAILEA

Miguel Angel Martinez (Bergara, 1961) du izena, baina Harindondin ezizenez ezagutzen dute jaioterrian eta inguruan. Izozki saltzailea da, eta Euskal Herrian hara-hona ibiltzen da furgoneta hartuta. Aurten uda berezia du, baina. Ez dago jairik, ez eta kirol ekitaldirik ere, eta egokitu behar izan du Harindondinek ere egoera berrira. Egunotan Mendaron dabil arratsaldeetan, Presapen. 17:30ak aldera agertu ohi da, mendaroarrak gozatzerara.

- AINARA ARGOTIA -

♦ **Sekula ikusi gabea genuen Mendaron leku honetan izozki saltzailea. Ipuinetakoa dirudi zure izenak ere: Harindondin. Nondik datorkizu izen hau?**

Gure aitak jarri zion izena, Emiliano Bitoriano Martinezek. 1929an hasi zen gure aita izozkigintzan eta haren ondorengoa naiz ni. Begira, erretratu zahar hau 1930ekoa da, Bergarakoa, eta argazkikoa gure aita da. Beste erretratu hau Eibarren egindakoa da, 40ko hamarkada hasieran, eta gure aita eta izeba ageri dira. Badut Elgoibarko Lopez izozki saltzailearekin batera ageri den beste argazki bat ere [Furgonetatik Harindondinen

“Jaien eta kirol ekintzen faltan, putzuz putzu nabil aurten”

historia biltzen duten dozena bat argazki zahar atera ditu, eta errepasoa eginez hasi da, izozki zain zituen ume gutziet eskatutakoa eman ostean]. Hasieran Farindondin geneukan izena, izozki markaren izen bera, baina gero izen hori erregistratu egin zuten Palentzian eta izena aldatu behar izan genuen. Farin berez irinetik dator, eta barkilloari egiten zion erreferentzia, eta dondin, berriz, izozki saltzaileak bezeroei deitzeko erabiltzen zuten kanpaitxotik dator. Baina esan bezala, Farindondin marka gisa erregistratu zutenean, guk izena aldatu behar izan genion gureari eta geroztik Harindondin gara.

♦ **Estreinakoz aurten etorri zara Mendarora, Presapera. Nola topatu duzu leku hau?**

Joan zen astelehenean eman zidan

leku honen berri Mendaroko gizon batek eta ikustera etortzea erabaki nuen.

♦ **Bergarra zara izatez. Nondik nora ibiltzen zara furgonetarekin?**

Begarako plazan postu bat daukat, baina herriz herri ere ibiltzen naiz furgonetarekin. Esango nuke Euskal Herriko festa gehienetan egon naizela, baina festez gain, kirol ekitaldi askotara ere joaten naiz. Frantziako Tourrera ere joan nintzen urte batean eta egia esan oso oroitzapen onak dauzkat. Denbora asko egon behar izaten da zain halakoetan, errepideak goiz ixten dituztenez goizean goiz igo behar izaten delako eta gero orduak egin behar izaten direlako han zain, baina merezi du.

♦ **Karakatekik ezagutzen zintugun. Iazko Karakateko Igoeran ere han**

zinen, 0 azpitik bi gradu egin arren. Izozkirik ez zenuen salduko ba, ala?

Jajajaja. Ez, ez. Salda eta kafesnea bai, baina. Izozkiekin bakarrik jai dago hemen. Dagoenera egokitzen ikasi dugu. Ura, edariak, goxokiak, izozkiak... ditut orain, eta ne-guan, edari beroak ere bai.

♦ Aurtengo urtea berezia izango da zuentzat ere. Nola eragin dizu pandemiaren kontu honek zuri?

Kalte handia egin dit, bistan da. Jaiak bertan behera laga dituzte herri askotan, eta gauza bera gertatu da kirol ekitaldiekin ere. Diru-sarrerak nabarmen gutxitu zaizkigu beraz, eta derrigor eragin behar buruari! Asteazken zehar putzurik putzu nabil orain. Eguraldi onarekin ura dagoen lekutara batzen da jendea, eta diru pixkat egiteko aukera ezin ba galdu! Mendarora etorri nintzen estreinako aldia jendea topatu nuen hemen, eta biharamunean etorriko ote nintzen galdetu zidaten hemen zeuden ume eta gurasoek. Baietz agindu nien, eta gaur dut hirugarren eguna. 17:30erako etorriko nintzela esan nien, eta bihar ere, eguraldi ona eginez gero, hemen izango naiz. Hemendik Bergarako erreka batera noa gero. Berandutxo nabil gaur, baina hangoei ere agindu nien, eta banao arrapaladan.

♦ Izozkiak zeuek egiten dituzue?

Lehen bai, baina orain erosi egiten ditugu.

♦ Zeren arabera aukeratzeko duzu nora joan?

Faktore asko hartzen ditut kontuan. Festa-ren tamaina, herriko festa dagoen lekura daukadan distantzia, jaiak edo dena delako ekitaldiak izango duen iraupena, eta jakina, eguraldia. Eguraldia niretzako oso faktore garrantzitsua da. Nahiz eta festa handi bat antolatu, eguraldiak laguntzen ez badu... alferrik da. Denok esango dugu gauza bera, baina izozki saltzaile batentzat eguraldia da lagun onena.

♦ Eta, ondoren izango al du Harindondinek?

Ez dut uste. Ez daukat seme-alabarik, baina izango banitu, beste zerbaitekin saiatzeko esango nieke. Hau oso lotua da, eta ez du merezi, ez duelako etekin handirik ematen.





Anthony eta Cynthia, astelehenean, Mendaron. Atzean, Chook zaldia eta bidairako duten etxe-karroa.

Bidaia amets

Iazko irailean abiatu ziren Avignondik (Frantzia), etxe-karroan. Chook izeneko zaldia dute etxe-karroari tiraka, eta katua, bi oilo eta beste bi txakur lagun hartuta iritsi dira Euskal Herrira. Ekainaren 2an sartu ziren gure lurretan, Lapurdin, eta kostaldetik barrena iritsi ziren Mendarora, astelehenean. Egunean hamar kilometro egiten dituzte batez beste. Presa ez du lagun ona bidaiariak. "Ez diogu denbora-mugarik jarri gure bidaiari. Lau bat urterako proiektua da, baina ez gaitu denborak estutzen", adierazi dute.

- AINARA ARGOITIA -

Emeterioneko atzeko aparkalekuan harrapatu ditugu atseden hartzen. Astelehen iluntzea da, eta gaur iritsi dira Itziartik. Etxe-karroaren ondoko larreran dute zaldia, indarrak hartzen, eta libre dabilta bi oiloak ere, belar hazian mokoka. Txakurrak eta katua, berriz, lo goxoan daude, eta ez dute jaikitzeo imintzio txikiena ere egin hurbildu gatzazkienean. Etxe-karroko leihotxotik burua

agertu du gizonezko batek, eta berehala irten da emakume gaztea, bisitariak agurtzera. "Anthony eta Cynthia gara eta zuen herrialdea ezagutzen ari gara". 28 eta 31 urte dituzte hurrenez hurren, frantziarrak dira sortzez eta iazko irailean laga zuten etxeko erosotasuna, abentura hasiteko. Hilabete pasatu da Euskal Herrira iritsi zirenetik, eta hamalagarren geldialdia egin dute gure lurretan: Ustaritze, Sen-

pere, Azkaine, Hendaia, Irun, Lezo, Donostia, Usurbil, Aia, Zarautz, Zumaia, Zestoa, Itziar (Deba) eta Mendaro. "Izugari polita da zuen kostalde hau. Aldapatsua ere bada, eta okerrera horixe da guretzat, baina oso polita da", adierazi du Cynthia. Bidaiariak dira, baina ez edozelakoak. Ikusmina sortzen dute behintzat bazterretan, ez delako ohikoena bidaiatzeko aukeratu duten modua. "Etxe-karro-

lazko irailean abiatu ziren Avignondik eta lau bat urteko bidaia egin nahi dute



garri hauetako bidaia bat hasteko. Gutxi-rekin egin beharreko bidaia da, eta zer utzi erabakitzea izan ohi da zailena. Hala ere, ez dute ezeren faltarik igarri bidaian. "Dena primeran doa. Ez dugu arazorik izan. Leku politak, jende ona eta jateko goxoa topatu ditugu orain artean", nabarmendu du Cynthiak. Gaur, astelehena, eguraldi beroa egiten du Mendaron, eta apenas dabilen jenderik Azpilgoetan. Lasai daude, aparkalekuko ertz batera eginda. "Jende gehiago batu zaigun egunak izan ditugu. Jendeak harrituta begiratzan digu normalean, bereziki umeek. Aho zabalik gelditzen zaizkigu begira. Ez da ohikoa gurea moduko etxe-karro bat ikustea". Kolore biziak ditu karroak eta ipuinetakoa dirudi. "Ematen du txontxongiloak aterako dituztela leihora", dio ikusmirara batutako 4 urteko umeak. Baina, ez, ez dituzte ipuinak kontatzen. Astean bost egunez bidaiatzen dute, eta gero, bi eguneko geldialdia egiten dute. Bi egun horietan ahalegintzen dira lan txikiak egiten gelditu diren herrian, diru pixkat bat lortu eta bidaiatzen jarraitzeko. "Normalean nekazaritza lanak egiten ditugu, eta modu

horretan finantzatzen dugu gure bidaia. Orain arte horrela moldatu gara behintzat". Ez dute gaur lanerako eguna. Bihar [martitzena] goizean goiz irtengo dira Mendarotik Eibarrerantz. "Han egingo dugu hurrengo geldialdia". Kilometro ugari dituzte aurretik, baina, Portugaleraino iristeko. Han jarri baitute lehenengo helmuga. "Portugal ezagutu ostean Frantziara itzuli nahiko genuke, etxera, eta gero, Iparralderantz joan nahiko genuke. Ez dugu erabaki oraindik zein bide hartuko dugun: Belgika aldera, akaso, edo Europa ekialdeko herrialdeak ezagutzera, bestela: Bulgaria, Errumania... ezagutu nahiko genituzke. Garbi duguna da bidaiatzen jarraitu nahi dugula. Lau bat urterako proiektua hasi dugu, eta gogotsu gaude", zehaztu du Anthonyk.

Roul O'vert izenarekin orrialde bat zabaldu dute Facebook sare sozialean, eta han ari dira bidaiaren berri ematen. Egunero eguneratzen dute mapa, eta argazkiak ere igotzen dituzte tarteka, etxekoei eta lagunei ondo daudela erakusteko. "Ametsa gauzatzen ari gara".

aren abentura hau hasi aurretik, kamioi handi batean bidaiatzen genuen, baina lizentzia kendu zidaten, eta zaldia eta etxe-karroa erosi genituen. Lehenengo beste karro bat hartu genuen, baina guk nahi genuenerako astunegia zen. Pentsatuta geneukana baino 500 kilo gehiago pisatzen zituen, eta beste hau ekarri genuen gero", azaldu du Anthonyk. Batek baino gehiagok ikusiko zenituzten eguntan beharbada kostaldeko errepidean. Bizikletaz joan ohi da aurretik Anthony, bizikletari gurdi txiki bat lotuta (oiloak darmatza han), eta atzetik joaten da Cynthia, zaldiak tiratutako gurdian, katua eta txakurrak lagun hartuta. Etpa motzak egiten dituzte. "Gehienez hamar bat kilometrokoak, zaldiak ere atsedena hartu behar duelako. Karroa pisatu genuen abiatzerako, zaldiari zer ahalegin eskatu ahal gion jakiteko, eta kalkulu hori egin dugu. 8 urte ditu Chookek", dio Cynthiak. Ondo antolatzea ezinbestekoa dela diote ezau-



LANA.....
Eskaintza

Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu. Lanaldi osoko kontratua eskaintzen da. Interesatuak bidali curriculumarekin rekap.gipuzkoa@gmail.com helbidera.

Adinekoak zaintzeko etxeko langilea behar dugu, irailetik aurrera. Ahal dela euskalduna
☎ 615 006 733

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka. ☎ 688 735 551

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. ☎ 692 706 581

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 685 386 485

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Zaintza lanetarako sozio-sanitario titulua daukat.
☎ 666 197 831

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka eta asteburuetan ere.
☎ 631 611 201

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat baserriko lanetan, ostalaritzan eta eraikuntza-lanetan. ☎ 632 264 076

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Gavez ere bai.
☎ 690 134 485

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 631 259 997

Arreta sozio-sanitarioko ikasketak egin nituen, eta pertsonen zaintzan jardun naiz azkenaldian. Hala ere, beste lanetan aritzeko prest nago. Euskalduna naiz. Asteleheneetik barikura, 11:00etatik aurrera.
☎ 688 725 715

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka. Esperientzia daukat eta berehala hasteko prest nago.
☎ 632 415 374

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Asteburuetan eta ospitalean ere bai. ☎ 631 465 603 (Carlos)

16 urteko neska elgoibartarra naiz eta umeak oso gogoko ditut. Uztailean umeak zaintzen egingo nuke lan gustura.
☎ 638 863 614

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai.
☎ 643 115 699

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka.
☎ 632 820 901

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 698 865 924

ETXEBIZITZAK.....
Etxebizitza salgai, duplexa, Bernardo Ezenarro kalean. 82 metro koadro ditu eta gela guztiek kanpoaldera ematen dute, hegoalderantz. Bista onak ditu. Trastelekua, garaje itxia eta igogailua.
☎ 685 722 131 / 635 715 503

Inmobiliaria batek etxeetan garbiketa lanak egiteko pertsona bat behar du.
☎ 677 054 741

Bi edo hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa da. Erreferentziak ditut.
☎ 681 212 449

GARAJEAK.....
17 m²-ko garaje itxia alokatzen da Lekuederren. Sarrera musika eskola ondotik dauka.3. solairua da.
☎ 629 526 683

BESTELAKOAK.....
Herriarren batek Haritz dantza taldeko erroparen bat baldin badauka etxean, deitu mesedez.
☎ 686 633 178

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Instituto Vasco Administradores para la Economía

Lokal komertzial baten jabea naiz, eta komunitatean aseguru komunitario bat kontratatzea pentsatzen ari dira. Komunitatearen aseguru-gastuetan parte hartu behar dudana jakin nahi nuke.

Erantzukizun zibileko aseguruak jabeen komunitateari eragin diezaioketen arriskua estaltzen du, baldin eta elementu, zerbitzu eta instalazio komunek ezohiko funtzionamenduaren ondorioz hirugarren bati eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra badago. Era berean, higiezin suntsitzen bada, jabe guztiek, lokalekoak barne, diru kopuru bat jasotzen dute kalte-ordain gisa. Alde horretatik, aseguruaren prima higiezinaren bizigarritasun egokirako beharrezko gastutzat hartzen da. Beraz, nahitaezko gastua da, derrigortasuna ezartzen duen lege-xedapen bat egon ala ez. Eta ondorioz, komunitateko guztiek parte hartu behar dute bertan, salbuespenik gabe, etxabe edo lokal jabeek barne.

Ondorioa. Komunitateak bere gain hartzen duen erantzukizun zibila ezin da ulertu hainbat jabearekiko gastu multzokagarri gisa. Ezin da alegatu lokalak bertan sartzen ez direnik. Izan ere, poliza hori elementu komunei buruzkoa da, eta agerikoa da lokal bakoitzak partaidetza-kuota bat duela elementu horietan, eta ezin zaiela uko egin. Polizaren helburua elementu komunaren ondoriozko erantzukizun zibila estaltzea denez eta ez jabetza pribatiboen, aseguru propioa izateak ez du kentzen aseguru orokorra kontratatzea. Beraz, azken batean, nahitaezkoa da lokal komertziala aseguruan sartzea.



ROSAMA PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Paul**, bihar 10 urte beteko dituzulako. Muxuak etxekoen, eta bereziki, Lide-ren partez.



Zorionak, **Alain**, atzo 5 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familia-koen partez.



Zorionak, **Laiene!** Infinito maite zaitugu. Muxu potolo bat Haizea, Larraitz, Irantzu eta Jabiren partez.



Zorionak, **Jon!** Gaur 7 urte! Oso ondo pasa eta muxu handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **bi-kote**. Ondo ospatu! Guk ere ospatuko dugu!



Zorionak, **Maria**, astelehenean 13 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



Zorionak, **Itsaso** eta **June**, urtetxo bat eta 12 urte beteko dituzuelako. Muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak, **Paule** eta **Libe**, hilaren 17an eta 23an 3 urtetxo beteko dituzuelako. Etxekoen eta lagunaren partez. Segi beti bezain alai eta sorgin izaten!

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

17 BARIKAKUA	18 ZAPATUA	19 DOMEKA	20 ASTELEHENA	21 MARTITZENA	22 EGUAZTENA	23 EGUENA	24 BARIKAKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984




BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian
edo
www.barren.eus webgunean

943 743 704 / 688 634 044

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR





I. URTEURRENA

Puri Iriondo Agirregomezkorta

2019ko martxoaren 21ean hil zen, 89 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, uztailaren 19an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

Beti gure bihotzean.

Etxekoak




I. URTEURRENA

Maite Barruetabeña Aulestiarte

2019ko uztailaren 19an hil zen, 61 urte zituela.

Beti gogoan.

Etxekoak



I. URTEURRENA

Luzio Bengoa Ruiz de Arbulo

2019ko uztailaren 23an hil zen, 94 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, uztailaren 19an, 11:30ean, Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Gure ondotik joan zara,
baina beti izango zaitugu gure bihotzean.***

Kaskante baserrikoak

IV. URTEURRENA

Ricardo Garate Zubiaurre

2016ko uztailaren 18an hil zen, 57 urte zituela.

***Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.
Maite zaitugu.***

Etxekoak





2020ko elektrogailuen Renove Plana

130€^{ra} arteko dirulaguntzak! Agortu arte.



MILAR BIRE

Ubitarte, 11
943 741 487
bire@milar.es



DESKONTU HANDIAKI

- Haurren izaretan
- Sehaska-koltxoietan
- Haurrentzako iragarki laburretan...



Etorri eta ikusi umeentzako produktuetan ditugun deskontuak.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Erretratu zaharrak behar ditugu



Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu,
bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta: barren@elgoibarkoizarra.eus

Barreneko bulegora ekarri: **Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.**



► Gremioen gida

ARROZTEGIAK

BICENA S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Ulazia
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

IMAR
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com



Aroztegia · Carpintería
ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Umuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
benito@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheak B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ongi Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako igeltsaritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

- Igeltsaritza
- Pintura

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranza@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Umuzuno, 14 beheak
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

LEIHOAK

LODOSO
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea

- Aroztegiak
- Erreformak